

**Audioaren erreferentzia:** Bagoaz A1E08 Afari xelebrea

**Maila:** A1

**Helburuak:** Gustuei buruz galdetzea eta erantzutea.

**Funtzioa:** Zerbait dagoen edo baden galdetu eta erantzutea, zerbait gustukoa den edo ez jakinaraztea.

**Azken ekintza:** pizzak aukeratzeko karta hartuta, zer afalduko duten adostuko dute, beti ere, beren gustuak kontuan hartuz.

**Adierazpide linguistikoak:**

- *Ukan* aditza. Nor-Nori (3. pertsona).
- Lexikoa: Jakiak: urdaiazpikoa, jogurta, haragia, porrua...

## 1- ENTZUN AURRETIK

1.1 Zer daukagu afaltzeko?

1.2 Erakutsi zure hozkailua

Ariketa gidatu, azaltzen diren hitzak jaso, eta, horiez gain, interesgarriak izan daitezkeen beste batzuk erakutsi.

## 2- ENTZUN BITARTEAN

2.1 Zer gertatzen da?

Non daude denak? Sukaldean

Nora deitu dute? Txinatarrari

2.2 Badakizu?

Nondik dator Josu? Ikastetik

Zenbat gauza eskatu dituzte afaltzeko? Lau

Zein dira? Ogi txinatarrak, hiru udaberriko rollito, ganbak tenpura eta ahatea saltsa gazi-gozoarekin

Zenbat dira afaltzeko? Lau

Nor? June, Amaia, Josu eta Oier

**2.1 eta 2.2ko** erantzunak denon artean zuzendu ondoren, galdera gehiago egin ea beste zerbait ulertu duten ikusteko, denon artean ahalik eta informazio gehien lortzeko:

*Zer ikusi du Josuk hozkailuan? Ezer ez; hutsik dago*

*Zer gustatzen zaio Josuri? Tenpura*

...

## 3- ENTZUN ONDOREN

3.1 Nik nahi dut

Azter dezatela transkripzioa nahiak eta gustuak adierazteko baliabideei erreparatuz. Hurrengo atalean azalpen zuzena dutela ohartarazi.

## 3.2 Jarri arreta hizkuntzan

Gustuak adierazteko formak aztertu eta adibide gehiago erantsi.

## 3.3 Afaria adostu:

Talde txikitan, pizzak aukeratzeko karta hartuta, zer afalduko duten adostuko dute, beti ere, beren gustuak kontuan hartuz.

### Transkripzioa

AMAIA.— Harrigarria da, afaltzeko garaia da eta Josu oraindik ez da sukaldera etorri.

JUNE.— Bai, hala da. Azterketak daukazue, ala? Josu horren langile egoteko...

Une horretan Josu bera agertuko da sukaldean.

JUNE.— Hara, deabrua aipatu eta...!

JOSU.— Kaixo, neskak. Bukatu dira ikasketak gaurkoz. Deskonektatzeko beharra daukat: afaria prestatuko dizuet, ados?

AMAIA.— Ados, baina ez dakit, beharbada ez duzu gauza handirik aurkituko hozkailuan.

JUNE.— Amaia, ez zara gogoratzen? Atzo erosketak egin behar genituen, baina azkenean ez ginen joan.

JOSU.— Lasai, June, utzi nire kontu...! Aizue, hemen ez dago ezer.

AMAIA.— Kar-kar! Esan dizugu.

JUNE.— Ez kezkatu, gaur afari txinatarra. Wangekin hitz egingo dut eta kito.

ETENA (00:59)

JUNE.— Wang? (...) Gabon, June naiz, (...) oso ondo, bai. Gaur ere janari txinatarra tokatzen zaigu, kar-kar. Bai, oso alferrak! Itxaron une bat (...) Amaia, Josu, nahi duzue nik aukeratzea? Bai?, primeran. (telefonoz) Begira, Wang, mesedez, jarri ogi txinatarra, hiru udaberriko rollito, ganbak tenpura eta ahatea saltsa gazi-gozoarekin (...) Bai? Gehiegi da? Ez, dena jango dugu, seguru. (...) Ordu erdi? Primeran, Wang, mila esker!

Junek telefonoa eskegiko du.

JUNE.— Arazo bat konponduta. Afari ederra egingo dugu!

AMAIA.— Bai, gero ez da erraza izango lotara joatea!

JOSU.— Amaia, ez zaitetz negatiboa izan. Oso ondo afalduko dugu.

AMAIA.— Bai, badakit, afari txinatarra asko gustatzen zait! Bueno, aukeran, nahiago dut saltsa gozoa, baina tira.

JUNE.— Edukiko dugu pixka bat etxean, Amaia. Nola ez, astean bitan txinatarrera deitzen dugu eta.

JOSU.— Niri tenpura gustatzen zait gehiena. Barazki finekin, sekulako platera da: arrautza pixka bat, irina... eta kito.

JUNE.— Eta Wang-en jatetxean mundiala egiten dute.

Une horretan tinbrea joko dute.

AMAIA.— Bai azkarrak txinatar hauek! (atea ireki eta Oier agertuko da). Oier da eta. Gabon!

OIER.— Nire zain, ala?

JUNE.— Ez, ez, txinatar baten zain.

JOSU.— Bai, bai, Oier, mementurik onena aukeratu duzu etxera bueltatzeko: bost minututan afaria mahaietan izango dugu.

OIER.— Pozten naiz.